


ZAKILIXUT

© Olariagak



Beach'n Pamps



*Australia, Zeelanda Berria, Hego Afrika eta Zimbabweco
 550 lagunek Zarautzen dute «sanferminetako kanpamentua»*

Ez da plan txarra: kanpamentua Zarauzko hondartza alboan jarri eta egunero autobusez joan-etorria sanferminetara. Horixe egin dute joan den lau egunetan Australiatik, Zeelanda Berritik, Hego Afrikatik eta Zimbabwetik etorritako 550 lagunek. *Beach'n Pamps*, alegia (hondartza+Iruñea). *Pamps* Iruñea da, nonbait, gure antipodetako sanferminzaleentzat.

Astehenean iritsi ziren Zarauzko kanpinera, Londrestik abiatuta, eta astearte eguerdian Iruñeko Udaletxeko plazan ziren guztiak. Ant Bryson zeelandarrarentzat une hura izan zen onena, baina *txupinazo* hitza ez zaio ezaguna egiten: «Txanpainaren irekiera zeremoniaz» hitz egin behar zaio, ulertuko badu. Auckland-eko Steven Hesseyk une bera nabarmen-

du du: «Banuen zezenen eta gaueko giroaren berri, baina txanpain eta arrautz zaparrada hori sinestezina zen! Zoramen!».

Atzo goizean entzierroan korrika aritu zen Steven: 05:30etan autobusa hartu, *cebada gagoen* aurrean lasterkan aritu, eta 09:30etan itzulerako autobusa, hondartzan atseden hartzeko. Zezenak oso hurbil ibili omen zituen. «Sei lagun

Zezenketara zihozenezek
15:00etan hartu zuten autobusa atzo.
Beste batzuek,
17:00etako autobusaren zain, siesta egin zuten kanpinean.

adarkadaz zauritu dituztela? Ez nekien!». Ant Bryson ere zezenen aurrean lasterka aritu zen, eta «apur bat» arriskutsua baino ez zitzaion iruditu. David, Port Elizabeth-eko hegoafrikarrak nahiago izan zuen zezenak barrera atzetik ikusi: «Ez da beldurra. Korrika egitea bertako jendearen kontua dela-koan nago». «Hegoafrikarrak oilo batzuk direlako!», bota dio Ant-ek.

Ant-en emazteak ere, Alana Hawker-ek, goizeko 05:30etako autobusa hartu zuen, baina zezenen iristea plazako harmailetatik ikustearekin etsi zuen. «Zergatik ez naitzen irten? Hemengoek ez dutelako nahi emakumeak entzierroan irte-tea. Bestela ere ez dakit irtengo nintzatekeen...». Stephen Yarr, Port Douglas-eko australiarra, kanpamentuko arduradunetakoa da: «Kanpamentuko gizonezko gehienek korritzen dute entzierroetan, baina emakumezkoek esaten diegu hobe dutela ez korritu, hemengo ohituren arabera gizonezkoak baino ez dira irteten eta».

Party Professionals Travel agentziak laugarren urtez jarraian antolatuta du *Beach'n Pamps* bidaia. «Helburua ez da parranda. Espainiako kultura eza-gutzea da bidaiaren funtsa. Sangria, paella, zezenak... Euskal Herria? Ez daki-gu politikaz, baina bai, euskal independentziaren alde gauden».

Atzo 15:00etan *Pamps*-era abiatu ziren berriro hiru autobusetan. Zezenketara eta gaupasa, hori-

xe zuten plana. Kanpinean siesta egiten geratu zirenek, 17:00etan zuten azken *party* handirako azken autobusa. Gaur eguerdian, denak hondartzara. *Recovery day* izendatu dute larunbata. Bihar, Londresera. Munduaren bestaldera, norbere kasara.

Imanol Murua Uria
 ZARAUTZ



EDURNE KOCH